

## **ALDAKETA TIPOLOGIKOA EUSKARAREN DIAKRONIAN?**

### **1. TIPOLOGIA-IRREGULARTASUNAK: ANEKDOTAK ALA ANTZINAKO ALDAKETEN AZTARNAK?**

- Euskararen ezaugarri tipologiko 'tipikoak': eranskaritasuna, morfologia ergatiboa, SOV ordena eta aditz joko aberatsa.

- Tipologia-irregulartasuna: 'izena + adjektiboa' ordena, berez SOV hizkuntza bati ez dagokiokeena. Greenberg-ek (1963) ez zion garrantzirik eman; ingeles modernoan SVO delarik 'I + Adj' tokatzen zitzaiola baina egiatan 'Adj + I' duela.

- Esan gabe doa: AE-ri ere egotzi zaio SOV hizkuntza izatearekin lotutako eredua.

- Bi hipotesitan bakarrik iradoki da antzina eredu kanonikoaz bestelako ezer egon zitekeela: batetik, Trask (1977), bestetik Gómez (1994) eta Gómez & Sainz (1995). Aditzaren osagaiaren azterketa eta aditzaren posizioa ziren eztabaidagai:

(1) Trask-ek (1977) SVO > SOV aldaketa proposatu, aditz-aurrizkien ordena azaltzeko.

(2) Gómez-ek (1994) eta Gómez & Sainz-ek (1995) aurrera jo, euskara VSO izan zela proposatu. Aditzak ezingo zuen hasiera absolutuko posizioa bete. Zeltan eta semitikoan ezaguna den prozesuaren antzera, euskal aditzak zatikiak, aditzaurrekoak ("da" 'orainaldia'...) edota pertsona adierazten duten klitikoak ("n" 'ni'...) hartuz joango zen denborarekin.

- Galdera bat: non daude aurrizkiak eta preposizioak? Zeren eta VSO hizkuntza guztiak aurrizki eta preposiziodunak baitira.

### **2. ADJEKTIBOAREN IZAERAZ.**

- Adjektiboaren 'irregulartasuna' lot dezakegu euskaraz daukan izaera badaezpadakoarekin. Baldin eta antzina adjektibo kategoria berez ez bazegoen, eta berandu sortua bada Dixon-ek (1977) adjektibo gabeko edo adjektibo-sail mugatuko hizkuntzetan aurkitu lau bideetatik (1982):

(1) Eratorriak: "bel-tz"...

(2) Partizipioak: "gorr-i", "zur-i"...

(3) Erlatibozkoak: "ur-din"...

(4) Maileguak: "berde", "marroi"...

- Normala baino ez da adjektiboa izenaren eskuinetara agertzea, hortxe agertzen baitira adjektibo berri horren sorburuetatik hiru (eratorriak, partizipioak eta maileguak). VSO

hizkuntzetan `I + Adj´ hurrenkera aukera bakarra da. Adjektiboa `tokatzen zitzaion´ lekuan sortu / sartu da.

- Erlatiboa: SOV bati dagokion bezala, erlatibozko egitura izenaren ezkerretara doa. Datu guztiak ez datoz bat horrekin:

- (1) `Fase sparita´-n `I + Erl´ ordena: “gizon Paristik etorri dena”.
- (2) “ur-din”, “bizar-dun”... tankerako eratorriak antzinako erlatibozkoak lirateke.
- (3) Toponimian “Ur dirakiena”, “Hartz eraena”, “Iturriadana”... aurkitzen da Amezkoan, Araba ekialdean edo Gorbeialdean, eta ez besterik.

- Gauza bera leku-genitiboaren ordenari buruz: “andra Mari Baldako”, “andra Milia Lasturko”...

### **3. ATZIZKI ETA POSTPOSIZIOAK.**

- Postposizioak eta atzizkiak izatea ezin hobeto datorkio SOV izateari. Aurrizki mailegatuak (“des-”...) hartzeko joera ahula. Postposizioak gardenegiak dira eta gutxiegi gramatikalku dira oso aspaldikoak izateko (Trask 1977). Hiru fasetan bezala ditugu:

- (1) “-en gain” (“horren gainean”...) erakoak. Gardenenak = berrienak.
- (2) “-rekin”, “-re(n) gatik” erakoak. Kamusten hasiak, baina oraindik gardenak.
- (3) “-k”, “-i”... erakoak. Ilunenak eta beraz, zaharrenak ziur aski.

- Semantikaren aldetik “-buru”, “-begi”, “-gain”, “-behe”... oso arruntak dira oraindik izen bezala ere. Ez dira gramatikalizatu edota oso neurri apalean.

-Erator atzizkiak testu zaharretan oso gutxi dira, eta gehienbat maileguekin lotuak; hiztegigileen eta antzekoen kontu dira batik bat (Pouvreau, Urte, Larramendi...); literatur hizkuntzarekin ugaldiaz joan dira.

- Sarasolak (1997) aztertutako 32 atzizkiekin egindako hitzen herena XX. mendean agertzen da lehendabizikoz.

- Lakarra (1997): oso berandu arte edozein errok ezin har zezakeen edozein atzizki, morfologikoki edo fonologikoki ustez egokia izan arren harentzat. Oraindik XVIII. mendearen hasieran hegoaldean erro mailegatuek soilik mailegatutako atzizkiak hartzen zituzten eta jatorriko ondarekoak soilik jatorrikoek; ez ziren, beraz, lau konbinaketa aukeran, bi baizik.

- Benetako eratorriak are urriago ziren, hizkuntza eransleetan ohi denetik urruti (eta literatur euskara modernoan aurkitzen dugunetik).

- Lakarra (2005): erator atzizkiak euskaraz izan badira, “-tasun”, baina hau oso urrun geratzen da finougriko edo koreera bezalako hizkuntza atzizkidunetatik. XVI. mendean

gaurko atzizki sistema eratu gabe zegoen. Atzizki sistema neurri oso handi batean literatur hizkuntzaren garapenarekin batera garatu da, eta hartan bakarrik garatu da ezagutzen dugun neurrian.

- Gainera, ez bakarrik `aurrizki > atzizki (sistema)`, baizik eta `X aurrizkia > X` atzizkia (morfema konkretuak) tokiz aldatu direla argudia genezake, Australiako zenbait hizkuntzatan bezala: “za-”, “de-”, “gi-”, “da-”, “le-”, “la-”... > “-(t)z(a)”, “-de / -te”, “-gi / -ki”, “-da / -t”, “-le”, “-la / -ra”...

#### **4. BISILABISMOA.**

- Eranskari izatea bisilabismoarekin lotuta dago: japoniera, mongoliera, turkiera, koreera, Australiakoak... Horietan, ia % 100 dira bisilaboak lexiko arruntean.

- Usuenik forma kanoniko ezberdinak dituzte osagai gramatikalek eta lexikoek munduko hizkuntzetan eta baita euskaraz ere. Uralikoaren portzentaje hauek euskara zaharrarekin erkatuz, tipologikoki ere ezingo zatekeen hurbil izan.

- Silaba bakarreko hizkuntza zenean euskara, ezin eranskari izan. Zer zen orduan?

#### **5. NON DAUDE AURRIZKIAK?**

- Lakarrak CVCVC egiturako hitzetan aurkitu uste ditu, horietan CV- ezin izan baitaiteke erroa (\*CV murriztapenagatik). Erroek elkartuen 1. osagaian -C galtzen zutela; aldaketa hau oso berria da (Erdi Arokoa).

- CV- horiek ez dira inoiz bakarrik azaltzen, ezta hitzen eskubiko aldera ere. Aurrizkiak ziren. Erroak baino txikiagoak ziren edozein afijorekin hizkuntza gehienetan ohi legez. Baliteke lehenago ikusi ditugun “\*la”, “\*sa”, “\*gi”... horiek antzinako aurrizkietako batzuk izatea.

- Onena litzateke egiaztapenak aurkitzea (etimologiak). Lakarrak uste du baduela “\*la” aurrizkirako. Erdi Aroan bokal artean “l” > “r” aldaketa gertatu.

- (1) Aurrizki gisa oraindik ere izango genuke, aditz arazle zaharretan dugun “-ra-” aurrizkian.
- (2) Tartean atzizki ere bihurtu zen: “honela”, “nola”, “bezala” gisakoetan, azken arrasto gisa.
- (3) Atzizki bera izango litzateke “-ra” (eta “-la” nahiz “-t”) adlatibokoa (‘nora’), gaur arte bizirik mantendua.

## **6. ADITZOINETAKO IRREGULARTASUNEZ.**

- “l”-z hasten diren ondare zaharreko hitzak oso gutxi dira; denak “\*d”-tik etorriko balira ere, ez dago konparatzerik “\*b-” eta “\*g-” hasiera duten hitzen kopuruarekin, ez eta erreduplikazioaren ondoko disimilazioak (“\*dodol” > “odol”) kontuan hartuta ere. AEZ-eko “\*d-” zenbait edo asko falta dira AEB-rako Mitxelenaren berreraiketan ez baita dagoeneko horrelakorik.

- Sagart-ek (1999) txinera zaharraren fonologiaren inguruan egindako lanean oinarrituta. Lakarrak proposatzen du \*e-VC eta CVVC aditzoin irregularretan egon litekeela azalpenaren zati bat, suposatuz “\*d” bokal artean suertatu denean galdu egin dela, /d/ unibertsalki /b/ eta /g/ baino ahulagoa dela kontuan harturik:

Mitxelena: jVC < \*e-VC

Lakarra: jVC < \*e-VC < \*e-dVC

“\*e-dutz-i” > “eutz-i” > “utz” / “\*dutz” > “\*luz”, cf. “luze”.

“jin” < “\*e-din” `etorri´ > `bilakatu´, `bihurtu´, “nadin”... trinkoak gramatikaldut ziren, eta artean “\*edin” > “jin” lexikaldutko zen.

“jakin” < “\*e-dakin”, “josi” < “\*e-dos-i”, “jarri” < “\*e-darr-i”.

- Urrats bat aurrerago: “jan” bezalako aditzetako “a” luze edo geminatua (“jaan”) eta aditz erro diptongodunetako bokalismoa azal daitezke pentsatuz batzuetan aditz erroan egitura Ca-CVC izan zela; zehazkiago, “\*da-dVC”, non “\*da” agian hitz hasieran “la-”\$ eta hitz barruan eta bukaeran “-ra” emango zuen aurrizki bera izan bailiteke:

“\*e-da-dan” > “\*e-a-dan” > “\*e-aan” > “ja(a)n” vs. “\*e-dan” > “edan”

“\*e-da-dus-i” > “\*e-a-dus-i” > “\*e-aus-i” > “jausi” vs. “\*e-duts-i” > “eutsi”.

- Hipotesia bermatzeko “da-” aurrizki honen funtzioak zehaztea. Bestalde, “ra-” aurrizki historikoki fosildua ( > “-erazi”, “-erazo” atzizkia) ezaguna genuen; “jarraitu”, “inarrosi”, “jardun”, “\*ardano”, “urgatzi”... azaltzeko “\*e-da-ra-CVC” proposatu behar dugu. Noizbait aurrizki gehiago ziren, garrantzi handia zuten aditzean eta gero galdu zuten, fosilduaz eta lexikalizatuaz. Proposa liteke aurrizki horiek (“da-”, “ra-”...) aditz lagunetik datozela.

- Hona hemen beste aurrizki bat VSO ordenaren alde.

## **7. BOKAL HARMONIA.**

- Bokal harmonia lotuta dago eranskaria izatearekin; harmoniak funtzio demarkatzailea izan ohi du. Badirudi erreduplikazioarekin eta erro kanonikoa bi silabako bihurtzearekin lotutako fenomenoak dugula euskaraz. Bi silabako hitz berriak hitz gisa hipermarkatzeko estrategia da.
- AEZ baino beranduagoko kontua da, baina Akitaniera baino lehenagokoa (cf. “sembe”, baina “gizon”, “gorri”...). AEB-koa edo geroagokoa, agian.
- Bi silabako hitzen artean zaharragozat joko genituzke CV<sub>1</sub>CV<sub>1</sub>C erakoak (“zahar”, “zuhur”...), “nahi” edo “bero” bezalakoak baino, hauek baino askoz ere analizagaitzagoak direlako.
- “Zahar” edo “zuhur” erako hitzak CV<sub>1</sub>-CV<sub>1</sub>C erara zatikatu behar ditugu, eta CV<sub>1</sub>-aurrizkitzat jo. Ohartu honekin ikusten ari garela aurrizkietan badela bokal harmoniarik, baina ez horrelakorik atzizkietan (“-i”...).
- Demostratzen ari gara garai ezberdinetakoak direla aurrizkiak eta atzizkiak, eta aurrizkiak zaharragoak direla. Euskaraz bi silabako erroak garatu zituen aspaldiko garai hartan, aurrizkiak baino ez zituen erabili, ez atzizkiak, eta honegatik aurrizkiak baino ez dira jausi bokal harmoniaren eraginpean.
- Ez omen dago bokal harmoniarik 5-6 bokal dituzten hizkuntzetan, beren artean urrunegi baitaude harmonia pairatzeko. Munda hizkuntzek orain 5 bokal dituzte eta bokal harmoniaren zenbait arrasto; aitzin-Mundan 14 bokal (7 luze + 7 labur) omen zuten. Proposatu beharko litzateke AEZ-k bokal inbentario handiago bat izan zuela, ziurrenik 7-10 bokal edo gehiago; kontua da ez dugula oraingoz hori zehazki berreraikitze beharrik.

## **8. BOKAL HARMONIA ETA EUSKAL ADITZAREN OSAERAZ.**

- Ez dago harmoniarik aditzetan, ziurrenik aditz jokoa berri xamarra da, esaten ari garenekin konparatuta. “Dihardut”, “diharduzu”, “dihardu”...-ra iristeko bistakoa da enborrak izan dituela aldaketa horiek guztiak eta beranduago enbor berri horri erantsi zaizkiola komunztadurak.
- Baieztapen hau garrantzizkoa da: Lafon-ek 60 trinko aurkitu zituen XVI. mendeko testuetan, egun bizirik dirauten 12 ingururen ordez, pentsatu ohi da inoiz aditz sistema oso trinkoa zatekeela. Beste hainbat datuk ez dute horrelakorik laguntzen inolaz ere.
- \*e- aurrizkidunek bakarrik dute paradigma trinkorik vs. “ahal”, “ahantzi”... bezalakoak, harmonia pairatu bide dutenak eta trinkorik ez dutenak.

## **9. ERGATIBOAREN SORRERAZ.**

- Trask-ek (1977, 1979) dio ergatiboa egitura pasibo batetik datorrela, Polinesiako hizkuntza batzuetan bezala, baina ez.

- Ergatibotasun morfologikoa aski fenomeno azalekoa da, subjektu aktiboa perpausean dagoen beste IS bizidun batetik bereizteko erabiltzen diren estrategia bietako bat baino ez:

(1) 1. estrategia (ordena): “Jean bat Pierre” (ordena aski da egilea jakiteko).

(2) 2. estrategia (IS subjektua markatzea): “Jon-ERG Kepa hil du”.

- Ergatibotasun morfologikoa V hasieran edo bukaeran duten hizkuntzetan agertzen da, ez SVO direnetan. Trask-ek (1977) proposatzen du, beraz, euskara ergatiboa jasotzeko SOV bihurtu behar izan zela. Hau ez da onargarri (zertarako aldatu?). Egia da ergatibo marka ezin zitekeela sor euskara VSO (edo VOS) egiturakoa zen aspaldi hartan baizik duela gutxi, edo SOV egiturakoa egin ondoren.

- “-k” fonologiaren aldetik ezin daiteke zaharregia izan, \*-T ezinezkoa baitzen: noizbait \*-CV izan zen, ziur aski “\*-gV”, eta beraz, ez dago oztopo fonetikorik lokatibo bizidunei ezartzen zaien “\*-ga” markarekin lotzeko (“-gana”, “-gandik”...).

- Munduko hizkuntza askotan agertzen da biziduntasuna eta ergatibotasunaren arteko erlazioa (Silverstein 1976).

- Nominatibo-akusatibo diren hizkuntzak osoki dira horrelakoak; ergatibo-absolutbio hizkuntzak, berriz, askotan defektiboak dira, alegia, ergatibo marka ez da non-nahi agertzen. Fenomeno hau lotuta dago biziduntasun hierarkiarekin. Ergatiboa ez da beharrezkoa perpausean bi bizigabe daudenean, baina bai bizidun hautagai badira subjektu aktibo izateko.

- Suposa dezakegu euskal deklinabidea eratzeko prozesua aski aurreratua zegoenean, `lokatibo orokorra´ (`lekua´ nonbait) adierazten zuen marka bat erantsi zitzaizela izen bizidunei. Hasieran, jatorriz eta funtzioz, bizidunei bakarrik zegokien “-k” marka hau, orokortu egingo zen subjektu aktiboa adierazteko, edozein IS motarekin.

## **10. ADITZ ESTATIBOAK (EDO EGOERA-ADITZAK).**

- Dravidiko (D) eta tibeto-birmanoen (TB) artean ezberdintasuna, adjektibo kategoria aske bat izatean edo ez izatean. D-k denbora kategoriaren inguruan antolatzen dute aditz sistema; TB-k moduaren arabera. Ondorioa: D-k aditz estatiborik ez, TB-k ugari.

- D bezalako hizkuntzek `ebento´-aditzak (`ekintza´ adierazten dutenak) baino ez dauzkate. TB bezalakoetan, berriz, egoera-aditzak ugari dira.

- Hau erlazioa daiteke euskararen historian antzeman ditzakegun fenomeno zenbaitekin: hasteko, “-i” bukaera duten euskal adjektiboen ugaritasunarekin: “gorri”,

“zuri”, “larri”, “hori”, “bizi”... Mendebaldeko “\*hotzi” (cf. “hotzitu”), “\*baltzi” (“baltzitu”). Etxeparek “\*hari” (“haritu” `hartu`).

- “-i” partizipio marka zaharra denez, suposa dezakegu adjektiborik ez zen garai hartan adjektibo gisa ber kategorizatu direla lehen aditz estatiboak zirenetako asko.

- Hau ez bide zen gauzatu “-tu” partizipio marka berria hartu zen arte, hots, akitanieraren ondoko eta Erdi Aroa baino lehenagoko garaietan, agian bigarrenetik gertuago.

## **11. ADITZ KATEGORIEN ARTEKO HIERARKIEZ.**

- D hizkuntzetan `denbora´ kategoria beharrezkoa da, modua eta aspektua ez bezala. `Denbora´ aditsoinean, beste bi kategoriak laguntzaileetan.

- TB hizkuntzetan denboraren eta aspektuaren baino, moduaren aldetik ezberdintasun gehiago daude, eta are batzuetan denborazko adberbio bat badago, denborazko marka desager daiteke.

- Hau erlazioa daiteke euskal aditz sistemak XVI. mendearen bukaeran pairatu zuen aldaketa sakonarekin, deribaren barruan.

- 3. pertsonako ustezko aurrizkiak (“d-”, “z-”, “l-”, “b-”) egiatan aditz kategoria nagusiekin (denbora, modua eta aspektua) lotu beharrekoak dira: gero berrinterpretatuko ziren 3. pertsona marka gisa (Trask 1977). Munduan ez dago hizkuntzarik 3. pertsona marka bat baino gehiago duenik, eta bai berriz pertsona honetan Ø marka duen bat baino gehiago.

- Modua adierazten zutenak honako hauek ziren: “da-” `jarraia / ez burutua´, “e-” `ez markatua / burutua´, “le-” `baldintzazkoa´, eta “be-” `optatiboa / subjuntiboa” (Trask 1977).

- Hipotesi honek arazoa: eskuarki modu-aurrizkiak aurrean doazen aditz laguntzaileetatik sortu ohi dira, eta biak SVO edo VSO ordenako hizkuntza ezaugarriak dira.

- Gainerako marka ez-pertsonalak: denbora edo aspektuko atzizkiak garatu ziren, ihartutako aurrizki gutxi batzuk baino ez dira geratu (“-ki”, “-it”...). Gaurko euskara SOV baita, eta honelako hizkuntzak modu-atzizkiak eta atzean doazen laguntzaileak izan ohi dituzte.

- `Modua´ adieraziko zuten aurrizkiak, edo ihartu dira, edo balio berriak hartu dituzte (pertsona-marka...). Areago, badirudi modu-aurrizki hauen kideko diren laguntzaile berrietan dagoela euskalkien arteko ezberdintasunik handiena (“egin” / “\*ezan” / “\*iron”) eta, beraz, baliteke laguntzaileok oso berankorrek izatea (Trask 1977).

- Baliteke, lehen euskarak aditza moduaren inguruan antolatzea, eta geroago aspektu-denboren inguruan, aditza erdian (edo hasieran) joatetik bukaeran joatera igaro ahala. TB hizkuntzetatik urrundu eta D-etara hurbilduko zen.

- Eranskaritasunerako deriba jasan duelako beste froga aske bat da.

## **12. LOKAZIOA.**

- D hizkuntzetan ezinbestekoa da kasu marka zehatza ezartzea erlazio semantiko jakin bat adierazi behar denean; TB-n (Bhat 2000), ordea, hiztunak erabakitzen du egoera bakoitzean ea markak desanbiguatu beharrezkoa den edo ez.

- “-rean” ablatibo zaharra ere horrelatsu eratuta dago: genitiboaren forma zaharra (“-n” gabekoa) + inesiboko “-an”; ohartu genitiboa ez dela leku-kasuetan beste inon agertzen.

- “heme-n-go”, “heme-n-dik” bezalako forma ihartuek (vs. “etxe-ko”, “etxe-tik”) pentsarazten digute lehenago hedatuago zegokeela “-n-” erabiltzea.

- Badirudi euskara tipologikoki eranskari den D-rantz hurbildu dela, eta TB-tik urrundu. Eranskarien ereduranzko hurbilketa hau ezin izan daiteke oso aspaldikoa, zeren eta euskal deklinabidea berez aski berria da.

## **13. AUSTROASIATIKOAREN BILAKABIDETIK AEZ-REN BERRERAIKETA.**

- Munda (M) eta mon-khmer (MK) hizkuntzek, nahiz jatorri berekoak izan, ezberdinak dira oso. Funtsean M hizkuntzak aldatu dira jatorritik: deriba delakoan aurrera egin dute muturreraino (Donegan & Stampe 1983).

- Euskara egun M bezalakoa bada, pentsa dezakegu M hizkuntzek jasan dituzten aldaketa berak jasan dituela. M bezalako hizkuntzekin konparatu ahal izateak bi abantaila ditu:

- (1) Konparazioaren laguntzaz, antzina nolakoa zen jakin dezakegu (MK hizkuntzen antzeko): 5 bokal baino gehiago, silaba bakarrekoa...
- (2) Eredu bat eskaintzen dio berreraikitzaileari, bere lana oinarritzeko, anarkiko eta agian pertsonal izateko arriskutik apartatzeko modu bat.